

❖ KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera ateratzeak hainbat gastu dakartza, eta gure enpresak gastu horiei aurre egiteko gai izan behar du. Negozio honen kostuak kostu finko eta aldakorretan sailkatu ditugu.

● KOSTU FINKOAK

Kostu finkoak enpresako ekoizpen-mailarekin edo negozio-bolumenarekin loturik ez dauden kostu totalen zatia dira. Adibidez: kafetegiaren alokairua, ura, argia eta gasa (zati finkoa), internet zerbitzua (wifi-a), soldatak, publizitatea, altzariak, kapital fisikoa, aseguruak...

● KOSTU ALDAKORRAK

Kostu aldakorrak enpresaren jarduera-maila edo ekoizpenarekin batera gehitzen den horri deritzen. Adibidez: baratzeko lehengaiak, produktu ekologikoak (bai materialak bai elikagaiak), ura argia eta gasa (kontsumoak)...

Gure hasierako inbertsioa 20.000 eurokoa izan denez, 12.000 euro inguru gastatuko ditugu kostu finkoen eta erreformen artean; eta beste 8.000 euro publizitatean, komunikazio- eta banaketa-kanaletan eta kostu aldakorretan inbertituko dira. Diru gehiago behar izanez gero, mailegu bat eskatuko zaio finantza-erakunderen bati gastu horiek ordaintzeko.

Kostu aldakorren barruan, enpresak ordaindu beharreko zergak ere finka ditzakegu; martxan jartzeko, irekitzeko lizentziak edo SZ (sozietate gaineko zergak) izanik.